

FUNTSEZKO JARDUERAK

Jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utz daitezke, eta beste batzuk ez. Gure kasuan jarduera gehienak guk egingo ditugu, eta horrela antolatuko gara:

Ekoizpena: produktuak ekoiztu.

- Haginpic ekoiztu: materialak, makinak, lantegia, langileak...
- Betaurrekoak ekoiztu: materialak, makinak, lantegia, langileak...

Bi produktu hauek lantegi berean ekoiztuko ditugu. Makinak erosi behar ditugu eta beren mantenimenduaz eta matxurutzen direnean konpontzeaz arduratzen diren langileak izan behar ditugu. Makinekin produktuak ekoizten dituzten langileak behar ditugu. Produkzioa bilatzen duten langile batzuk ere behar ditugu. Enpresaren kostuetaz arduratzen diren langile batzuk, oinarrizko materialak saltzen dizkiguten enpresekin komunikatzen diren langileak, produktuak banatzen dituzten enpresekin komunikatzen diren langileak ere behar ditugu.

Arazoak konpontzea:

- Enkargatuak: lantegiko errebisioak egiteko eta arazoak konpontzeko
- Programadoreak web orrialdeko arazoak konpontzeko
- Langileak bezeroen kezkei erantzuteko

Langile batzuk izan beharko ditugu lantegian bertako prozesu guztiak errebisatzeko arazorik egon ez dadin, eta baldin badaude, ahalik eta azkarren eta ondoen konpontzeko. Web orrialdeko arazoak konpontzeko eta gure bezeroen kezkei erantzuteko gu egongo gara bulego batean.

Plataforma edo Sareko jarduerak:

- Web orrialdearen programadoreen bulegoa
- Bezeroekin komunikatzen diren langileak eta bere bulegoa
- Marketing-an lan egiten dutenak
- Web orriaren lizentziak

Bulego handi bat beharko dugu sareko jarduera guztiak egiteko, web orrialdeak programatzeko eta diseinatzeko, bezeroekin harremanetan jartzeko, bezeroen kezkei erantzuteko (bulego hau taldeko baten garajea izango da hasiera batean gastuak murrizteko), publizitatea antolatzeko eta diseinatzeko (beste enpresa bat kontratatu dezakegu publizitatea gure beharren arabera diseinatzeko, baina azkenean erabaki dugu guk egitea gastuak murrizteko)

Produktuak banatu: produktuak banatzeko beste enpresa batekin (Seur, DHL, GLS...) asoziatuko gara, beraiek arduratzeko produktuak garraiatzeaz.